

ANTI BARBIAK

NAHIKOA DUN, MARTA!

Mercè Anguera

Bego Montorioren itzulpena

Desclée De Brouwer

ANTI BARBIAK

Hamar urte dituzte. Kalekumeak dira, eta bizi diren auzoan denetik dago: etxe zaharrak eta etxe berriak, parkea, azoka, liburutegia, anbulatorioa... Auzoko ikastetxera doaz, eta, aurten lehen aldiz, eurak bakarrik, 5. mailan daude eta.

MARTA

Ile gorrixka du, lasto lehorraren antzekoa (harro eta tente ateratzen zaio burutik, benetan lastozkoa bailitzan, nahiz eta saiatzen den nola edo hala lotuta eusten). Betaurrekoak ditu, eta zer?; norbera den bezalakoa da. Garaia da, baldar samarra eta oso-oso berritsua... Familiarekin bizi da: gurasoak, amama, Helena (hamabost urteko ahizpa nagusia) eta Andres (neba txikia, umetxo bat).



MARTA, ELI ETA NAO: ANTIBARBIAK DENAK BATENTZAT ETA BAT DENENTZAT

ELI

Txiki samarra da (kakanarrua esaten diote).
Iluna du ilea -ez luzea ez motza-, eta sudurra,
txikia eta oreztaz betea. Izugarri azkarra da,
eta ikastea maite du. Martak eta Naok ez dute
ondo ulertzen nola den posible hori; primeran
datorkie, alabaina, hura ondoan edukitzea,
etxeko lanak egiteko orduan. Egun batzuetan
amarekin (hobe esanda, umezainarekin) eta
beste batzuetan aitarekin bizia da.



NAO

Ile luzea eta liso-lisoa du, aurpegi borobila, gelako
oinik txikienak eta txinatar-begiak. Ondo ematen
diote, nolanahi ere, horixe baita bera, txinatarra.
Txinan adoptatu zuten gurasoek, eta, behar bada
horregatik, nahikotxo (gehiegi) mimatzen dute;
Martak eta Elik esan ohi diote hori ez dela ona,
baina hark ez die jaramonik egiten. Oso Antibarbi
berezia da, izan ere, barbi bat ere baita, neurri
batean.

1

Elik pikutara bidali ninduen arratsaldean hasi zen dena. Nao negarrez hasi zen, bera bidali izan balu bezala.

—Zelan pikutara? —esan nuen nik, gauzak argi gelditzea gustatzen baitzait. —Bada, hori, pikutara. Agur —erantzun zuen Elik, eta ateari danbatekoa emanda alde egin zuen.

Eli dut adiskiderik minena. Gaur ez du hala ematen, baina egia da: Eli dut adiskiderik minena, haurtzaindegiaz geroztik, bai eta Nao ere, duela denbora pilo bat —Txinatik zuzenean— 3 urtekoen gelara heldu zenetik.

Nao, artean ere, negarrez ari zen. Oso berea du hori Naok; negarrez hasten denean, kosta egiten zaio gelditzea. Ez du erremediorik. Antza, oso sentibera da, eta, gainera, negarrak ondo ematen dio. Niri, negar egiten dudanean, gorritu egiten zaizkit sudurra eta begiak, baina Naori ez, haren begi beltz arrailduek are gehiago distirutzen dute, eta ezpainenek bihotz itxura hartzen dute. Orduan, mundu guztiak izaten du hari hitz goxoak esateko gogo, negarrari utzita irribarre egin dezan.

Irribarrez dagoela, sagutxoia ematen du; niri ordea, irribarreak, batzuetan, behor itxura ematen dit. Halakoa da bizitza, badakit, baina, a zelako amorrua...

Zer egin daiteke adiskiderik minenak pikutara bidali zaituenean eta beste adiskiderik minena negar batean dagoenean? Bada, ezer onik ez; hortaz, matematikako lanekin jarraitu nuen. Matematikako etxeko lanak baldin badituzu –zazpi buruketa eta bi zifratako bi zatiketa–, nahitaez egin behar dituzu, andereñoak ez baitu barkatzen.

Izan ere, etxeko lanak egiteko lotuak ginen. Gure etxea primerakoa da eskolako lanak egiteko, amamak oso merienda goxoak prestatzen dituelako eta nire logelako mahaia oso handia denez badagoelako hirurontzako tokia. Baina, gaur, amama podologoarengana joan da, eta ez dugu ez meriendarik hartu ez eta etxeko lanik egin. Naori ez dio axola eskolako lanak egin gabe uztea: behar izanez gero, amak oharra idatziko dio agendan; honelako zer bait: oharra!

Kaixo, Teresa.

*Naok tripakoa mina izan du
eta horregatik ez ditu etxeko
lanak egin.*

Sinatua:

Montserrat de la Fuente

Ez dago jakiterik zergatik, baina, Naori, ohar horiek funtzionatu egiten diote. Elik eta biok esaten diogu beti horrelako aitzakiak idazten badizkiote, azkenean, pertsona arduragabea izango dela eta bizitzan ez duela probetxuzko ezer egingo. Berak dio badakiela baina ez diola inporta, etxeko lanak egitea oso aspergarria dela.

Niri ez didate oharririk idazten, eta horregatik egin behar ditut eskolako lanak, kosta ala kosta. Gogorik gabe, baina heldu egin nien. Zer bestela!

Bi zifratako zatiketak zailak dira, eta arreta handia jarri behar duzu. Nekez lortuko duzu, ordea, aldamenean isil-isilik baina etengabe negarrez ari den bat baldin baduzu. Denbora pixka bat pasatuta, beraz, esan egin nion:

— Nao, utziko al dion negar egiteari?

— Ez! —negar zotinka—. Badakin ezin dudala!

— Tira, Nao; Elik hiri ez din ezer esan eta!

— Baina nirekin ere haserre zagon. Igarri egin zionat.

— Zertan igarri dion?

— Eskaileretan gora gentozela, bultza egin zidan!

Aho zabalik gelditu nintzen. Elik bultza? Elik ez du sekula bultza egiten!

— Seguru hago bultzada izan dela? Behar bada, estropezu egin din.